

EUSKADIKO
ORKESTRA
22—23

Esnaera *Despertar*

→ Mahler · Lazkano

OTSAILA 21 FEBRERO
19:30

PAMPLONA / IRUÑA
Baluarte

euskadikoorkestra.eus

EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular
ROBERT TREVIÑO

Musikariak / Las/os músicas/os

KONTZERTINOA **CONCERTINO**

Kamran Omarli

I BIOLINAK / VIOLINES I

Waldemar Machmar (1)
Xabier de Felipe (3)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Irene Echeveste
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitx Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (3)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Luxi Lavielle (4)
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (3)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK **VIOLONCHELOS**

Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (3)
Natalia Díaz
Ángela Escauriaza (4)
Javier Escrihuela (4)
Jacek Grabe-Zaremba
Jon Larraz
Beatriz Linares
Tetiana Mertelova (4)
Pascale Michaud
Ian Swedlund

KONTRABAXUAK **CONTRABAJOS**

Arkadiusz Maciejewski (2)
Paloma Torrado (2)
Guangyao Zhao (3)
Victor Bogdanov
Marc Sirera
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Silvia Esain (2) (4)
Hervé Michaud (2)
Rafael Alonso
Pascal Laffont

KLARINETEAK **CLARINETES**

Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz (2)
Cristian Palau (2)
Jean-Luc Casteret
Adrián García Carballo
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)
Bernabé García (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Daniel Ruibal

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA **TIMBALES Y PERCUSIÓN**

Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi
Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Lehen tuttia / Primer tutti
- (4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

21 OTSAILA
FEBRERO

Esnaera
Despertar



ROBERT TREVIÑO
Zuzendaria • Director



ALEXANDRE THARAUD
Pianoa • Piano

Egitaraua ^ Programa

I

RAMON LAZKANO (1968)

Mare marginis (pleine lune), para piano y orquesta [21']

Argitaletxea / edita: Maison Ona

Erabateko estreinaldia / Estreno absoluto

II

GUSTAV MAHLER (1860-1911)

Sinfonía nº5 en do sostenido menor [68']

- I. Trauermarsch
- II. Stürmisch bewegt
- III. Scherzo: Kräftig, nicht zu schnell
- IV. Adagietto
- V. Rondo-Finale

Babeslea / Patrocina



VIRALGEN

Programa honetan bildu dituen bi konpositoreekin kideasun handia du **Robert Treviñok**. Erromantikoa da bata, Gustav Mahler. Zuzendari mahlerzale handia izatearen ospea du Treviñok, harekin egin baitu debuta nazioarteko orkestra garrantzitsuak zuzentzen. Ramon Lazkanok da bestea, gure garaiko euskal musikagilea. Treviñok lotura handia du Lazkanoren soinu-unibertsoarekin 2016an Euskal Herrira etorri zenetik, eta horren adierazgarri da Lazkanoren musika beste orkestra batzuen atriletara eraman duela, hala nola RAIren Orkestra Sinfoniko Nazionalarenera, 2022ko martxoan *Mugarri* estreinatu baitzuen. Emanaldian, **Alexander Tharaud** ere izango da, egungo pianista europarrik garrantzitsuenetako bat. Aditu handienetako bat kontsideratuta dago teklaturako Frantzian idatzitako musikan, garai guztietakoa, Rameauren eta Couperinen barrotoik hasi, Debussy, Ravel eta egungo sorkarietaraino. Tharaud kultuko pianojolea da, argitaratu dituen bakarkako 25 diskoei esker, eta maiz gonbidatzen dute orkestra famatuak, esaterako, Amsterdameko Concertgebouw-ek, Clevelandeko eta Filadelfiako orkestrek edota London Philharmonic orkestrak.

Tharaud izango da protagonista **Mare Marginis** lanaren estreinaldian. **Ramon Lazkanok** pianorako egin duen bigarren kontzertua da. Aurretik, gaztaroan, *Hitzaurre Bi* (1993) sortu zuen, eta horrek bere ibilbide profesionalari bultzada handia eman zion, Prince Pierre de Monaco Fundazioaren konposizioaren saria irabazi baitzuen. Baina bi kontzertuen artean igaro diren hogeita hamar urteak oso agerikoak dira. Izan ere, Lazkanok lehena konposatu zuen 90eko hamarkadaren erdialdean intuizio estetiko berrien esplorazioari ekin aurretik. Ondoren, intuizio horiek sendotu zituen mende aldaketaren inguruan, *Igeltsoen laborategia* izeneko lanaren ganbera-piezen ziklo luzearekin. Gérard Pessonek gauza harrigarrien intuizio musikal gisa deskribatzen ditu, inoiz entzun gabeak direlako eta, aldi berean, ezin poetikagoak; batzuetan, oso arraroak, eta besteetan, desfasatuak.

Mare Marginis enkargu bat da, Euskadiko Orkestrarena, Radio Francerena eta Koloniako WDR Orkestrarena, eta joan den otsailaren 11n estreinatu zuten, Parisen, Présences jaialdiaren baitan. Egilearen arabera, izenburuak erreferentzia egiten dio «urik ez duen itsaso bati, muga ere badenari, llargiaren aurpegi ikusgaiaren eta ikusezinen arteko mugarriari». Lazkanok metafora hori hautatu du musika kontzertanteari buruzko bere ideien askotariko adarrak batzeko modu gisa, bere memoria kontziente eta inkontzienteen esplorazioaren bidez. «Pianista solista agertzen da orkestra baten inguruan orbitatzen duen satelite gisa; orkestrak, berriz, oihartzun-ganbera lanak egiten ditu, emanazio barnerakoi baten soinu-aura balitz bezala, eta zabaltzen den zarata baten iturria da ezagunak zaizkigun zeinuak hautematen saiatzen garen lurraldean: birtuosismoa, dialogoak, ikuskizuna», adierazi du konpositoreak.

«Kontzertu honetan saiatu naiz nire gaueko erreferentzien orrialde gastatuak aurkitzen (Chopin, Bartok, Debussy), gidari izan baititut irudipen polifonikoz eta oasi inarmonikoz betetako nire basamortuan. Solistak menderatzen duen espazio honetako alde ikusgaiaren eta ezkutuaeren arteko atalaseek ahalbidetzen dute etengabe aldatzen ari den soinu total, kulunkari baten ametsa, non ezinezko bihurtu baiten ibilbide bat aintzatestea. *Mare Marginis* lanean, lurrazal ikusgaien eta ikusezinen arteko itsaso-basamortu horretan, teklatura aztertu nahi nuen berriz, trebetasuna miatu, teklaturen gainean korrika ibili edo gelditu soinurik gabe, horien gainean hegan egin hasperen latzen zaratekin edo horiek behartu ezkutuan, kaxaren sakonenean harrapatuta dauden erresonantziak lapurtzeko, besoak ondo irekitzea tresna besarkatzeko eta pianoaren maiztasun guztiak neureganatzea, kanta dezala kantu arraro bat, iheskor bat, bi aldiz (azken bi kadentziei erreferentzia eginez) irekitzen duena isiltasunaren aukera, piezaren iraungitzea dena».

5. Sinfoniak biltzen ditu Mahlerren ekoizpenaren pasarte ezagunenetako bi. Lehen a partituraren hasierako konpasetan iristen da: hiletarako banda-doinu bat intonatzan duen tronpeta-solo bat eta, sinfonia bat abiarazteko baliabide erretoriko gisa, bitxia bezain bikaina da. Tronpetak jotzen duen lau notako motiboa Beethovenen *Bosgarren sinfoniaren* antzekoa da benetan –Euskadiko Orkestraren abonuko aurreko programan entzun ahal izan genuen–, eta jatorria dauka, **Mahlerren** ohikoa denez, gertakari autobiografiko batean.

1901eko otsailaren 24an, arratsaldean, Vienako Orkestra Filarmonikoak interpretatutako Anton Brucknerren 5. *Sinfonia* monumentala zuzentzen aritu zen Mahler eta, gauean, ia atsedetik hartu gabe, berriz itzuli zen Austriako hiriburuko Staatsoper-eko agertokira Mozarten *Flauta magikoaren* emanaldirako. Ikusleen artean, Alma Schindler zegoen, eta gerora hauxe idatzi zuen: «Mahlerrek Luzifer zirudien, aurpegia klariona bezain zuria eta begiak txingarrak bezala baitzituen. Pena eman zidan eta nirekin zeudenei honela esan nien: “Hau ez dago jasaterik”». Alma ez zebilen oso oker, gaur horretan bertan Mahlerrek odoljario masiboa izan baitzuen, hilzorian utzi zuena. Justine arrebak berehala bi mediku deitu zituelako salbatu zen. Mahlerrek hauxe azaldu zion Arnold Rosé koinatuari gau horri buruz: «odolaren heren bat galdu nuen. Benetan, suspertuko naiz; hala ere, gaixotasunak hamar urte kendu dizkit». Lehengoratzan ari zela, hausnartzen hasi zen Mahler gertatu zenaz eta hainbeste borrokatu ondoren bere bizitzan eta lortu zuen guztiaz. Horren ondorioz, esnatzearen sinfonia hau idaztea erabaki zuen, tronpeta-solo izugarri batekin hasten dena.

Handik hilabete batzuetara, 1901eko ekainean, sendatuta zegoenean, Austriako hegoaldeko Maiernigg lakura bidaiatu zuen Mahlerrek, zenbait urte lehenago eraiki zuen etxolara, non udak ematen baitzituen atsedetik hartu gabe konposatzen. Han igaro zituen hiru hilabeteetan *Bosgarren Sinfoniaren* lehen bi mugimenduetan osatu zituen. Horien konnotazio autobiografikoak agerikoak dirudite. Lehen a hileta-martxa ilun bat da, hasierako tronpeta-soloaren ostean, soken melodia malenkoniatsu eta etsitu bat dakarrena, gero indarkeria eta desesperazio handiko unek astintzen dutena. Bigarren mugimendua, amorru-leherketa batez abiatzen dena, sinfoniaren egiazko lehen mugimendua da Mahlerren arabera. Aurreko hileta-martxaren oihartzunetako batzuk biltzen dituen arren, askoz ere konplexuagoa da bere planteamendu formal nahasiagatik eta aurrera egin ahala txandakatzen dituen egoera psikologikoen kopuruagatik. Hala ere, eta Mahlerrek bakarrik egiten zekien moduan, osotasunean orekatua da eta diskurtsoan, efektibitate handikoa.

Nahiz eta badauden arrazoi batzuk pentsatzeko sinfoniaren gainerakoaren ideia orokorra bideratuta utzi zuela, Vienara itzuli zenean ustekabeko gertakari bat izan zen: 1901eko azaroan, lagun batek Alma Schindler aurkeztu zion eta harekin zeharo maitemindu zen. Handik bost hilera, 1902ko martxoan, ezkondu ziren, eta sinfoniaren espirituak, hurrengo udan Maierniggen amaitu zuena, erabateko norabide aldaketa izan zuen. Hirugarren mugimendua, *Scherzo*, optimismoz beteta dago, eta Mahlerren arabera, gizateria irudikatzen du egunaren goieneko unean, bizitzaren zenitean. *Adagietto* famatuaren ondoren dator, Mahlerren lagun zen Willem Mengelberg zuzendariak honela azaldu zuena: «Gustavek Almari egindako maitasun-aitortza da. Eskutitz baten ordez, eskuizkribu hau bidali zion bestelako azalpenik eman gabe. Hark mezua ulertu zuen, eta eskutitz batean etortzeko eskatu zion. Anekdotak hori biek kontatu zidaten!». Azkenik, maitasuna gailendu eta gero, bosgarren mugimendua indar eta birtuosismo handiko rondo bat da, eta sinfonia amaiera bikain batera eramaten du, non koral garai bat agertzen baita.

Mikel Chamizo

Robert Treviño ha reunido en este programa a dos compositores con cuya música tiene una gran afinidad. Uno es romántico, Gustav Mahler, y con él ha hecho su debut al frente de importantes orquestas internacionales, labrándose el renombre de ser un gran director mahleriano. El otro, Ramon Lazkano, es vasco y contemporáneo, y Treviño ha establecido una fuerte conexión con su universo sonoro desde que llegó al País Vasco en 2016. Tanto ha sido así que ha llevado su música a los atriles de otras orquestas con las que trabaja, como la Orchestra Nazionale della RAI, que estrenó en marzo de 2022 *Mugarri* de Lazkano de la mano de Treviño. Se sumará también a la velada **Alexander Tharaud**, uno de los pianistas europeos más importantes del momento, considerado uno de los mayores especialistas en la música francesa para teclado de todas las épocas, desde el Barroco de Rameau y Couperin hasta Debussy, Ravel y la creación actual. Tharaud se ha convertido en un pianista de culto gracias a sus 25 discos en solitario y es invitado con asiduidad por orquestas tan importantes como la del Concertgebouw de Ámsterdam, las de Cleveland y Filadelfia o la London Philharmonic.

Tharaud protagonizará el estreno de ***Mare marginis***, el segundo concierto para piano de **Ramon Lazkano** tras *Hitzaurre Bi*, una obra de juventud (1993) que dio un impulso importante a la carrera del compositor donostiarra, ya que con él ganó el Premio de Composición de la Fundación Prince Pierre de Mónaco. Pero los treinta años que separan a ambos conciertos son muy patentes, ya que el primero fue compuesto previamente a las intuiciones estéticas que Lazkano comenzó a explorar a partir de mediados de la década de los noventa, que afianzó con su extenso ciclo de piezas camerísticas del *Laboratorio de tizas* en torno al cambio de siglo, y que Gérard Pesson describe como «la intuición musical de cosas inauditas, en el sentido literal del término, de cosas que todavía no han sido nunca oídas y que son, al mismo tiempo, extremadamente poéticas, a veces muy extrañas, en ocasiones desfasadas».

Mare Marginis es un encargo conjunto de Euskadiko Orkestra, Radio France y la Orquesta de la WDR de Colonia, y tuvo su estreno el pasado 11 de febrero en París, en el marco del Festival Présences. Según explica el autor, su título hace referencia a «un mar sin agua que es también el lugar de un límite, el que demarca lo visible de lo invisible de la luna». Lazkano ha escogido esa metáfora como una forma de conciliar las múltiples ramificaciones que tiene para él la idea de música concertante, internándose en la exploración de sus memorias conscientes e inconscientes. «El pianista solista se manifiesta como un satélite en órbita de una orquesta que funciona como una cámara de eco, como el aura sónica de una emanación introvertida, y es la fuente de un ruido que se extiende, un territorio acústico donde tratamos de adivinar signos familiares: el virtuosismo, los diálogos, el espectáculo visual», revela el compositor.

«En este concierto trato de encontrar las páginas gastadas de mis referencias nocturnas (Chopin, Bartok, Debussy), que me guían en mi desierto lleno de espejismos polifónicos y oasis inarmónicos. Los umbrales entre el lado visible y el oculto de este espacio dominado por el solista permiten el sueño de un sonido tartamudo, tambaleante, en constante transformación, donde reconocer una trayectoria se ha vuelto imposible. En *Mare Marginis*, este mar-desierto entre superficies visibles e invisibles, quería explorar de nuevo el teclado, explotar la destreza, correr sobre las teclas o detenerme en ellas sin sonido, volar sobre ellas con ruidos de ásperos suspiros o forzarlas para robarles sus resonancias escondidas, sepultadas en lo más profundo de la caja, abrir bien los brazos para abrazar el instrumento y apropiarme de todas sus frecuencias, hacerlo cantar con un canto raro, esquivo, que abre en dos ocasiones (en referencia a las dos cadencias finales) la posibilidad del silencio que es la extinción de la pieza».

La ***Sinfonía nº5*** contiene dos de los pasajes más célebres de toda la producción mahleriana. El primero de ellos llega en los compases iniciales de la partitura: un solo de trompeta que entona una fanfarria fúnebre y que, como recurso retórico para iniciar una sinfonía, es tan excéntrico como genial. El motivo de cuatro notas que ejecuta la trompeta es ciertamente

parecido al de la *Quinta sinfonía* de Beethoven –que pudimos escuchar en el anterior programa de abono de Euskadiko Orkestra–, y su historia se remonta, como suele ser habitual en **Mahler**, a un episodio autobiográfico.

En la tarde del 24 de febrero de 1901, Mahler dirigió la monumental *Sinfonía n.º5* de Anton Bruckner al frente de la Orquesta Filarmónica de Viena, y esa misma noche, sin apenas descanso, volvió al podio de la Staatsoper de la capital austriaca para una función de *La flauta mágica* de Mozart. Entre el público se encontraba Alma Schindler, quien escribiría que Mahler «parecía Lucifer: el rostro tan blanco como la tiza, los ojos como carbones encendidos. Sentí pena por él y le dije a la gente con la que estaba: ‘Esto es más de lo que puede soportar’». Alma debía de tener un ojo clínico, porque esa misma noche Mahler sufrió una hemorragia masiva que lo llevó a las puertas de la muerte, de la que solo se libró gracias a la rápida acción de su hermana Justine, que avisó a dos médicos. Mahler le contaría a su cuñado, Arnold Rosé, que esa noche «perdí un tercio de mi sangre. Ciertamente me recuperaré, pero la enfermedad aún me habrá costado diez años de mi vida». Durante su recuperación, y reflexionando sobre lo ocurrido y lo que había alcanzado en su vida tras tantas luchas, Mahler decidió escribir una sinfonía «del despertar» que arrancase con un solo de trompeta.

Unos meses más tarde, en junio de 1901 y ya recuperado, Mahler viajó al lago Maiernigg en el sur de Austria para instalarse en la caseta que se había hecho construir unos años antes y en la que compartía sin descanso durante los veranos. Durante los tres meses que pasó allí completó los dos primeros movimientos de la *Quinta Sinfonía*, cuyas connotaciones autobiográficas parecen obvias: el primero es una oscura marcha fúnebre que, tras el solo de trompeta inicial, desemboca en una melodía melancólica y resignada de las cuerdas que más adelante se verá sacudida por momentos de gran violencia y desesperación. El segundo movimiento, que se abre con una explosión de furia, es según Mahler el verdadero primer movimiento de la sinfonía, y aunque recoge aún algunos ecos de la marcha fúnebre anterior, es mucho más complejo por su abigarrado planteamiento formal y la cantidad de estados psicológicos que va alternando en su recorrido. A pesar de ello, y de una manera única en Mahler, logra generar un todo equilibrado y de gran efectividad en discursiva.

Aunque hay razones para creer que Mahler ya dejó encaminada la idea general del resto de la sinfonía, tras su regreso a Viena ocurrió algo inesperado: en noviembre de 1901 un amigo común le presentó a Alma Schindler y se enamoró perdidamente de ella. Cinco meses más tarde, en marzo de 1902, se casaron, y el espíritu de la sinfonía, que fue finalizada en el verano siguiente también en Maiernigg, da un giro radical. El tercer movimiento, *Scherzo*, es una página que irradia optimismo y de la que Mahler afirmó que representa “a la humanidad en pleno esplendor del día, en el cénit de la vida”. Llega después el famosísimo *Adagietto* que, tal y como explicó el director Willem Mengelberg, amigo de Mahler, «fue la declaración de amor de Gustav a Alma. En lugar de una carta, le envió este manuscrito sin más explicaciones. Ella entendió el mensaje y le envió una nota pidiéndole que viniera. ¡Los dos me contaron esta anécdota!». Y así, tras el triunfo del amor, el quinto movimiento, un rondó de gran vigor y virtuosismo compositivo, conduce a la sinfonía a una brillante conclusión con la aparición final de un coral triunfante.

Mikel Chamizo

Hurrengo Abonu kontzertua · Próximo concierto de Abono

SARRERAK / ENTRADAS

Antsietatea

Ansiedad

→ Adams · Walker · Rachmaninoff

MARTXOA 14
MARZO
19:30

10€ < 38€

- euskadikoorkestra.eus
- baluarte.com
- Leihatila / Taquilla

AZKEN
ORDU
GAZTEAI
10€

Itxaropena daramagu mundura

Gure zientzia orain arte sendatzen ez ziren pazienteen bizitza aldatzen ari da. Terapia genikorako cGMP ziurtagiria duen AAV fabrikazioan aitzindariak gara.

*Haur hau Irai da,
ume-parkinsona (AADC)
duen Gironako pazientea.
Terapia genikoz tratatu
diren munduko 35
pertsoneko bat da.*

